

Neskame eta morroi

Euskaldunon Egunkaria, 1996-05-19: 3.

Euskarak badu herri honetan, beste herriek beren hizkuntzetan duten bezala, neurri beteko egiten duen moldearen txapela. Nabari da hau hemen herritasunarekin topo egiten dugun bakoitzean. Esan, lehiakideak prest dira beren burua zuritzeko erabiltzen duten hitzeko abilezian, baina tolerantziaren ekintzaz eman behar denean zailagoa da. Hau gertatzen zaie zaletasunez eta probetxuz espainolak diren erdaldunei eta euskaldunak diren batzuei ere. Gure Estatutuaren eredia defendatzen dute demokratiko bezala, euskararen azentu eta guzti, ez dadila bere izaera hau falta!; baina idatziaren azentu grafikoaren lekuan hizketan ahozko tonikoa jartzen hasten diren bezain laster larritzen dira, eta zerbitzu hizkuntza bezala erabili nahi dute. Administrazioan euskaldunei erantzun ahal izateko soilik. Badakite hizkuntzaren funtsa ahozkoa dela, letra idatzia geroko eskolapena izan dela; bestalde, hitzeko giza-praktikan ezin da hizkuntza, euskara kasu, neskametza edo morrontza zerbitzuko galde-erantzun sintetikora mugatu! Gure hitza osoa behar dute Euskal Herriko funtzionarioek gure herrian, ez "bai" eta "ez" erantzuteko neskame eta morroi lotsagarriaren errepika leloa.